

Igandean, Santo Tomas Azoka

Hamaiketako koxkorrira egiteko jan edana, NOAUA!ren postua, Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa, kantu-jira berezia... Giro bikaina aurkituko duzue abenduaren 14ko Santo Tomas Azokan. Baserritar jantziekin gerturatu frontoi ingurura. Ekitaldiok izango dituzue:

Goizean zehar:

- Sagardo-babarrun dastatzea.
- Txistorra eta taloak.
- Udarregi Ikastolako ikasleen postua.
- Alkartasuna Kooperatibaren postua.
- NOAUA!ko postua: produktuen salmenta, bazkidetza egiteko aukera, argazkia atera eta Errigorako saskia irabazteko zozketa...



Aurten ere, sagardoa banatuko da bisitarien artean.

11:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa frontoian. “Baserrian bizi denak badauka hamaika zeregin. Noizik eta behin ezustekoak ere izaten dira. Ba al dakizu zer gertatu zitzaion Martin artzainari?”

12:00 Kantu jira: Sohütako ikastolaren aldeko kanpainari bukaera emateko.

Santo Tomaseko kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuko da, Kli-k Itsasuko txarangarekin batera.

13:00ak aldera:

- Zuberoako ikastolak laguntzeko elkartasun kanpainaren amaiera ekitaldia.
- Errigora saskiaren zozketa.
- Sagardo eta babarrun lehiaketako sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria:

Udarregi Ikastolako jangela berrian, Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren alde. Prezioa: 20 euro. 12 euro, 12 urtetik beherakoentzat.

■ Txartelak: Txiribogan, Aitzagan eta Txirristran salgai. Txartela erosteko azken eguna: abenduaren 11.

Elkarlanean: NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Nafartarrak, Kantu Taldea.